

Merkatari agurgarria:

Badakizu udalerrri euskalduna dela gurea, eta eragile asko ari direla ahalegin handia egiten euskara normalizatzeko helburuarekin. Herriko establezimenduak giltzarri dira horretan: herriko bizitzan eragin handia duzue, eta hizkuntza duzue bezeroekin harremanetan jartzeko tresna. Horregatik, inportantzia handia ematen diogu herriko establezimenduetan euskararen erabilera areagotzeari.

Jakin badakigu aldaketa teknikoak egin beharrean zaretela establezimendu ugartan, ogasunak beharrezko egin duelako TicketBAI softwarea erabiltzea; horren bidez, establezimenduak egiten dituen fakturak zuzenean igorriko dira ogasunera. Hainbat enpresa informatikok prestatu dituzte TicketBAI rako balio duten aplikazioak, eta establezimenduetan jartzen ari zarete pixkanaka.

Kontua da ogasunek baimendutako aplikazio gehienak ez daudela euskaraz. Hori atzerapauso handia da gurearen gisako udalerrientzat. Azken urteetan urratsak egin ditugu merkataritzako hizkuntza paisaia euskalduntzeko, ariguneen bidez hizkuntza ohiturak aldatzeko, eta, finean, herritarrei zerbitzu hobea emateko. TicketBAI proiektua beste pauso bat emateko aukera da, euskarazko fakturak egin ahal izateko, baina, horretarako, aplikazio informatiko egokia behar da.

Hori eskatu nahi dizugu, beraz: **TicketBAI sistema ezartzeko egiten dituzun egokitzapenetan, kontuan har dezazula udalerrri euskaldun bateko establezimendua dela zurea, euskaldunak direla bezero gehienak, eta hizkuntzaren normalizazioan pauso handia dela fakturak euskaraz egitea. Euskaraz erabil daitezkeen programa informatikoak instalatzeko eskatu nahi dizugu.**

Orain arte bezala, gogoratu UEMAren zerbitzua eskura duzula laguntza emateko: euskarazko kartelak egiteko, itzulpenekin laguntzeko, aholkularitza emateko... Zure establezimendua eremu garrantzitsua da herriko bizitzan, eta euskararen aldeko pausoetan bidelagun izan nahi zaitugu.

Edozein dudarekin, jo udalera ([XXXXXXXXXXXXXXXXXX](#)) edo UEMara (administrazioa@uema.eus).

XXXXXX, 2021eko apirilaren XXean



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXko alkatea

Iraitz Lazkano Garitaonaindia
UEMAko lehendakaria

Puede acceder al contenido de esta carta en castellano en esta dirección o código QR: labur.eus/cartaUEMA

